



Beasaingo Udala

ESP. KODEA. 2024HIKU0001	
EXPEDIENTEA	KULTURAKO HITZARMENAK
TITULARRA	ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA
TOKIA	BEASAIN

HITZARMENA

BEASAINGO UDALA ETA ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIREN ARTEKO HITZARMENA “ GIPUZKOAKO DANTZA MAISUEN PUNTUAK ETA ALDAIRAK” LIBURUAREN MAKETAZIORAKO.

Beasainen, 2024ko urtarrilean

BILDURIK

Alde batetik, **Leire Artola Ugalde** andrea BEASAINGO UDALAREN (IFK, P2002100B), ordezkari gisa, Alkatea den heinean, Korporazio osatzeko bileran 2023-06-17an kargu hori betetzeko izendatua izan zelako. Egintza honetarako ahalmena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikulua ematen dio.

Beste aldetik, **Juan Jose Aguirre Mauleon** jauna, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIKO (IFK: G20059135), ordezkari gisa. Egintza honetarako ahalmena, Donostiako Guadalupe María Inmaculada Adanez García notario aurrean 2011-03-11n sinatutako ahalmen eskriturak (protokolo zenbakia, 494), ematen dio.

AURREKARIAK

1. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1,20) artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa ondorengo aurreikusten du: Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
2. Eskumen horretaz baliatuz, BEASAINGO UDALAK, eta, zehazki, Kultura, Euskara eta Merkataritza Azpiarloak, Beasaingo udalerriaren kultura eta jaien arloko



Beasaingo Udala

eragile nagusia da. Bere jarduera udalerrian arte plastiko eta eszenikoak sustatzetik, kultura-, hezkuntza-, dibulgazio- eta museo-jarduerak eskaintzeraino doaz. Aldi berean, bere eginbeharren artean kultura-ondare materiala eta materiala ez dena kontserbatzea eta zabaltzea aurreikusten da. Hori guztia eskaintzeko, dantzarako, antzerkirako, zinemarako, museorako, liburutegirako, irakurketarako,... ekipamenduak ditu.

3. Kultura esparru zabal horren barruan Beasainen, dantza tradizionalak betidanik garrantzia handia izan du. Egun ere, bi dantza-talde eta balleta talde bat daude.
4. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA (aurrerantzean, ARANZADI) irabazi-asmorik gabeko elkarte zientifikoa da. Bere estatutuetako 2. eta 3. artikuluetan jasotzen diren helburuen artean, Kultura-ondarea eta natura-ondarea ikertzea, ezagutzea ematea eta babestea azaltzen dira.

ARANZADIk, Gipuzkoako dantza maisuen historiari buruzko liburu bat argitaratu nahi du, "**Gipuzkoako dantza-maisuen puntuak eta aldairak**" izeneko. Liburu hori plazaratzeko, Beasaingo udalak, beste entitate publikoen antzera, bere laguntza eskaini eta ematen du liburua plazaratu dadin.

Horrelako liburu bat argitaratzea ez ohikoa da. Urte askoren datu bilketa eta ikerketa lanaren ondorengo emaitza da. Orain arte beste inork ez du jaso dantzaren inguruko ondare hori. Ezinbesteko dokumentua izango da dantzaren bilakaera ulertzeko Goierrin eta bide batez, Beasainen. Beasain herria eta bertako dantza tradizioaren aipamena 300 aldiz baino gehiagotan egiten da.

5. Beasain herria eta bertako dantza tradizioaren aipamena 300 aldiz baino gehiagotan egiten da. Horren lekuko, 90 pertsonen elkarrizketak jasotzen dira eta horietatik 12 beasaindarrak dira eta beste hainbat Beasainen edo beasaindar dantza taldeetan aritutakoak.

Hauek dira aipatuak:

- Xabier Sarriegi (140 aldiz)
- Jesus Mari Garate (105 aldiz)
- Juan Cacho (39 aldiz)
- Joxe Sarriegi (27 aldiz)
- Luis Mari Sarriegi (21 aldiz)
- Mikel Sarriegi (17 aldiz)
- Arturo García (24 aldiz)
- Xanti Lasa (28 aldiz)
- Joxe Agustin Olano
- Jose Luis Bastida
- Karmele Sarasola
- Josean Sarriegi



Beasaingo Udala

6. Bildutakoek interesa partekatzen dute ondare historiko eta kulturalaren kontserbazioa bermatzeko, kontuan izanda Konstituzioak eta Toki Erakundeei aplikagarria den legeri eta arauak agindutakoa, hots:
- 1978ko Espainiako Konstituzioaren 46. artikulua: «botere publikoek Espainiako herrien eta hura osatzen duten ondasunen ondare historiko, kultural eta artistikoa kontserbatzea eta aberastea bermatuko dute ...».
 - Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikulua honako hau dio: «Udallerriak, Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako legeriaren arabera, honako gai hauetan izango ditu eskumenak:... e) ondare historiko-artistikoa».
 - 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena. 17.1 artikulua honela dio: Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udallerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituzte honako eremu material hauetan: 21) Udalaren ondare historikoa babestea, kudeatzea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.
 - 2023-2025 Egitasmo Estrategikoan ondorengo diru laguntza lerroa aurreikusten da: 2.3. kultur ondarea jasotzea eta babestea.
7. Uka ezina da bi aldeek partekatzen dutela materiala ez den kultura ondarea kontserbatzeko borondatea eta hori interes publikoa sustatzearekin bat datorrela.
8. Arrazoi horregatik eta kontuan izanda Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 2. artikulua aurreikusten dituen xehetasunak betetzen direla, 2024.urteko udal aurrekontuan 0240.781.336.10.02 partida izenduna kontsignatu da ARANZADI: DANTZA MAISUEN LIBURUA ARGITARATZEA, 12.500€ko dirulaguntza emateko, ARANZADI onuradunaren alde eta **"Gipuzkoako dantza-maisuen puntuak eta aldairak"** liburuaren argitalpenean laguntzeko helburuarekin (maketazioan, hain zuzen ere).

Horren ondorioz, bi alderdiek elkarri kontratatzeko eta betebeharrak hartzeko gaitasuna aitortu diote eta hitzarmen hau honako klausula hauen arabera idaztea adostu dute:

ESTIPULAZIOAK

Lehenik. Helburua: Hitzarmen honen xedea esku hartzen duten alderdien eskubideak eta betebeharrak arautzea da, **"Gipuzkoako dantza-maisuen puntuak eta aldairak"** liburuaren argitaratzeko, ARANZADI horretarako 12.500 €ko dirulaguntza emanaz.

Bigarren. ARANZADIren betebeharrak:

- 1.- Diruz lagundutako jarduerak burutzea; hain zuzen ere, liburuaren maketazioa ordaintzea.



Beasaingo Udala

2.- Liburuan Goierriko eta, bereziki, Beasaingo pertsona edo erakundeei buruzko datu guztiak sartzea, historian zehar dantzaren bilakaeran eragina izan dutenak.

3.- Beasaingo Udalari **"Gipuzkoako dantza-maisuen puntuak eta aldairak"** liburuaren 20 ale ematea.

4.- Igartzako Monumentu Multzoan bi aldeek adostutako egunean egingo den liburuaren aurkezpen publikoan parte hartzea.

5.- Liburua argitaratzearen inguruko prentsaurreko bat eskaintzea.

6.- Beasaingo Udalaren lankidetzat agerraraztea, liburuan Beasaingo armarria jarritz, beste laguntzaile batzuen armarriekin batera. Ekarpeneren zenbatekoa izango da armariaren posizioaren eta tamainaren isla. Horrela, ekarpen handiena egiten duen erakundeak lehen postuan joango da, eta gutxien egiten duenak azken postuan. Ekarpen handiena egin duten bi erakundek leku eta tamaina pribilegiatua izango dute.

7.- Beasaingo armarria jartzea liburua zabaltzeko erabiltzen diren euskarri guztietan eta aipamena egitea aurkezpen publikoetan.

Armarria eta Beasaingo Udalaren izena erabiltzerakoan ondorengoak kontuan izango dira:

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa; indarrean dagoen Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza; eta Beasaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

- Hizkera ez sexista izatea.

8.- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koa, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

9.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

10.- Udal organo eskudunak edo udal kontuhartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

11.- Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jasotako bestelako diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.

12.- Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.



Beasaingo Udala

Hirugarren. Beasaingo Udalaren betebeharrak:

"Gipuzkoako dantza-maisuen puntuak eta aldairak" liburuaren maketazio gastua 12.500€koa da. Hori horrela, 12.500€* ordainduko dio Beasaingo Udalak ARANZADIri jarraian adierazitako moduan:

- 1. Ordainketa bakarra 12.500 eurokoa da. Hitzarmena sinatu ondoren diruz lagundu diren lanak amaitu eta gastua justifikatu ondoren egingo da ordainketa eta horretarako hauek aurkeztu beharko dira:
 - Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egotearen agiria.
 - Egindako lanaren faktura.
 - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo diru-laguntza guztien erantzukizuneko adierazpena, ARANZADIko diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Baita jarduera horrekin lotutako beste sarrerarik ez dela egon, eta bestelako sarrerarik jasoko balute, horren berri izan bezain pronto Udalari jakinaraziko lioketela

*Beasaingo Udalak dirulaguntza emango du beti ere, maketaziorako gastu eta dirusarreraren arteko gainfinantziatorik ez badago eta zuriak egokia bada.

Laugarren. Gastuak justifikatzeko epea:

2024ko abenduaren 31a baino lehenago aurkeztu beharko da izandako gastuen justifikazioa, hirugarren estipulazioan aipatutako moduan.

Bosgarren. Beste laguntza batzuekin bateragarritasuna:

Diru laguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta dirulaguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako diru laguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, dirulaguntzaz gain, funts propioak edo beste diru laguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

Seigarren. Hitzarmenaren iraupena:

Hitzarmen honen indarraldia, 2024-12-31artekoa izango da eta ezin izango da luzatu.



Beasaingo Udala

Zazpigarren. Onartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak:

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Diru laguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoa itzuli beharko du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontuhartzailletza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

Zortzigarren. Hitzarmena bertan behera geratzea:

- 1- Epea amaitutakoan.
 - 2- Bi aldeek espresuki horrela adosten dutenean.
 - 3- Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen ez dituztenean.
 - 4.- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.
- Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.

Bederatzigarren. Jarraipen, zaintza eta kontrol mekanismoak:

Hitzarmenaren betearazpenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko, eta hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, batzorde bat sortuko da, kide hauek osatua:

- Udal-erakundearen aldetik, Herritarren Batzordeko zinegotzi arduraduna eta Kultura eta Euskara koordinatzailea.
- ARANZADIren aldetik, Juan Jose Aguirre Mauleon.



Beasaingo Udala

Hamargarren. Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio aplikagarria:

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua araberak, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da eskumena duena.

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebartziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Eta aurreko guztiarekin adostasun frogatzat, bildutakoek hitzarmen hau sinatu dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean

BEASAINGO UDALA

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Sinatua : Mariola Pascual Paredes
Alkateak 2023-7-3an emandako
2023/1116 Ebazpenak baimenduta

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU5af17c46-64e2-4c39-88a4-7673408fcac0**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

